



Ander Gortazar Balderi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Kale espazioa

Tabakalera, goizeko hamaikak puntuan. Euria ari du eta dozena bat lagun bildu gara donostiarron jostailu berria bertatik bertara ezagutzeko. Urtebetetze oparia irekitzearen den haurraren moduan sentitzen gara, bizikleta modernoa ala azkura ematen duen artilezko jertsea, bietako zein jasoko dugun oso argi ez dugula. Formak bizikleta iradokitzen du, giroak jertsea.

Ikusmina eta eszeptizismoa, berdinketa markagailuan. Urdu-ritasun puntu bat igartzen da eta ez da gutxiagorako, guztion lehen aldia da, bai eta askoren azkena ere seguruenik.

Hasi dira hizketan gidari lanak egiten dituzten bi gazteak. Elkar txandakatuz, esan nahi baita. Eraikinaren azalera futbol zelai unitatetan eman ondoren eta "sinergia" eta "ekosistema" hitzak bizpahiru aldiz errepikatu ostean, non gauden azaldu digu bi gidarietatik lehenengoak. Lobbyan edo sarreran geundela uste nuen, baina ez: "kale espazio" estalian gaude. «Kale espazioa –azaldu digu bigarren gidak segurantzia inbidiagarrikanpoko espazio publikoaren hedapen bat da, baina eraikin barruan»; hau da, kalean egin badezakegu, baita Tabakalerako lau pareta horien barruan ere. «Adibidez, ba zer-bait bazkaldu».

Nire buruari zuzendu nartzazio bi hari mutur lotu dituen detektibearen pozez: «POPS bat!». Nire golkorako esan dut ez dudalako nahikoa konplizitaterik espero beste bisitariengandik. POPS akronimo ingeles bat da (Privately Owned Public Space), eta ingelesei ez bezala, euskaldunoi ez zaizkigu hain elegantek ateratzen akronimoak: JPEP, Jabetza Pribatadun Espazio Publikoa. Tabakalerako kale espazioak, instituzio publikoek kudeatua izanagatik, arrisku bera du.

JPEPek duten arazo nagusia da publikoak diruditela baina ez direla, eta lausotu egiten dela egin ezin daitekeenaren eta egin daitekeenaren arteko muga, lehenengoaren mesedetan betiere. Beiruteko plaza ustez publiko batean gertatutakoa datorkit burura, literalki ezer ez egiteagatik kaleratu –esateko modu bat da, kalean nengoen eta– nindutenekoa.


Eskailetan gora goazela eskailetaren nondik norakoez ari dira gidak, eraikinaren –«eraikin zaharraren», zuzenketa nire golkorako– elementu nagusia dela eta abar, baina nire zalantzek arreta galarazten didate: kale espazioan etxetik eramandako urdaiazpiko ogitartekoa jan dezaket ondoko parkean erositako Coca-Cola edaten dudan bitartean? Eskean aritzea posible da kale espazioan? Kontzentrazio bat, manifestazio bat, protesta bat? Pentsatu eta esaten ez diren gauzak. Ez naiz galdezera ausartu, gazteegia naiz agure erretxinaren papera (publikoki) jokatzeko eta zaharregia haur sasijakintsu lotsagabea izateko.

Arrazoi berberengatik, autozentsura aplikatu eta ez dut "The Guardian" egunkariko artikulua hartan irakurritakoa besteekin partekatzen: (...) «baina espazio bat kontrolatua dagoenean, eta bereziki bertan egin daitezkeen jardueren muga onargarri edo legalak zein diren argi ez dagoenean, gure burua zaindu egiten dugu, gure jokabidea kontrolatu eta gure interakzioak mugatzen ditugu, are gehiago egoera deserosoren bat izan badugu segurtasun langileren batekin».

Gauzak zer diren. Bisitaldi gidatu batera joan eta hiri kapitalista eta espazio publiko garaikidearen problematikari buruz hausnartzen pasa ditut bisitaldiak iraun dituen 30 minutuak. Funtzionatzen du Tabakalerak, bai horixe.

Baina zalantzati nago eta ez dakit nola ulertu behar dudana kale espazioaren zera hori: hiri espazio publikoak berzko duen askatasun eta puntu kaotiko horren aldarrikapena da, ala, kontrara, premonizio gisa ulertu behar dugu, hiri espazio publikoek hartuko duten norabidearen adibide moduan? Izan bedi lehena, arren.

Jatetxea izango den teilatu gaineko bolumenean amaitu dugu bisitaldia –«*lo mas bonito, las vistas*», *fail*– eta behera jaitsi naiz, hau da, kale espaziora. Kafe bat hartu dut; ebaki bat, euro bat eta hogeita hamar zentimo. Doako wifi behintzat probestu dut kontu batzuk txiokatzeko eta etxerantz noa. Kalean, kale espazioan ez bezala, euria ari du. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI



Arantxa Urbe
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Mundua haurren eta gazteen begietara

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:

Mardako (Palestina) haur talde bati marrazki bana egiteko eskatu genien behin. Orri zuriak eta margoak mahai gainean ipini, eta librean utzi genituen marrazten. Koloretako marrak lotuz joan ziren. Palestinako banderak, etxeak eta abar azaltzen hasi ziren. Denen artean marrazki batek eman zigun atentzioa, bereziki. Argazkiko mutikoak, orri osoa ordenatuki betetzen zuen txarrantxa marraztu zuen. Alanbre arantzadun luzea.

Alboko lagun batzuek ere txarrantxak egin zituzten. Txarrantxaren atzean mundua marraztu zuten, edo txarrantxaren azpian, akaso.

Marrazkia da espresatzeko erabili dugun modurik zaharrena. Historiaurretik erabili da pertsonok barruan duguna adierazteko, komunikatzeko, tresna gisa. Marrazkia, beraz, haurraren hizkuntza naturala da. Une jakinean, bere zirrarak, sentimenduak eta afektuak adierazteko baliagarria zaio. Marrazkiaren bidez, gainera, haurrak hitz egiten digu munduaz duen ikuspegiak, nola hautematen duen eta bera bertan nola txertatzen den.

Beste egun batean Nablus-eko eskola batera joan ginen. Marrazkiak egin, eta haurrekin dantzan eta jolasean ibili ginen. Patioko ertz batean, ordea, zortzi bat urteko mutikoa begira-begira izan genuen. Zorrotz eta mesfidati begiratzen gintuen bere begi beltzekin, zutabe atzetik. Hezitzaileak azaldu zigun mutiko hark nola ikusi zuen aita atxilotzen eta ama haurduna tiroz hiltzen beren etxe atarian. Baziren hilabete batzuk gertaera hartatik, baina ordutik mutil palestinarrek apenas egin zuen hitzik. Saiatu ginen geureganatzen, baina alferrik izan zen. Begirik kendu ez zigun mutila ez zen milimetro bat mugitu. Bizitzak zein interes eta zein erakargarritasun izan zezakeen, hain aurpegi krudela erakutsi ondoren?

Gure gailuetako pantailetara Siriako horroretik ihesi datozen jendeen irudiak agertu dira. Ehunka mila pertsona. Familia osoak, zuten guztia atzean utzi eta bizirautea posible izango omen den lurra- ren bila.

Izuaren eta desesperazioaren er-

dian haurrak eta gazteak ikusi ditugu. Eta txarrantxak topatu dituzte, itxaropen posible bakarrerako bidea ixten dieten txarrantxak. Beren herriak eta bizitzak suntsitu eta haustu dituzten botere ekonomiko eta politikoei berek altxatuak, suntsiketa lana errematatu nahian bezala.

lheslari horiek badituzte irudiak, komunikabideak kontatzen ari dira beren drama, argazkiak ateratzen dizkiete, existitzen dira, hortaz, gure begietara. Auskalo zergatik kontatu eta erakutsi dizkiguten oraingoan horien historiak eta aurpegiak. Izan ere, milioika dira lekukorik gabe, argazkirik gabe, urtetan horroretik ihesi beren herriak utzi eta gureetara hurbildu nahi izan duten jendeak. Horiek ez dizkigute erakutsi.

Hainbesteko tamaina hartu du eskandaluak, ezen gobernuek eta administrazioek, iheslariak beren artean banatu eta artatuko dituztela esan baitute. Horretarako, protokoloak sortuko dituzte Siria, Irak, Afganistan eta Afrikatik datozen jendeak dituzten beharrak bideratzeko, tartean eskolaratzea.

Baliteke, beraz, laster gure heziguneetan izatea pertsona horiek. Orri zuriak eta margoak emanez gero, zer marraztuko ote dute? Izango ote du irudirik beren begi txikiek ikusi duten eta beren bihotzek sentitu duten izuak eta horroreak?

Izu-ikara sortzen du munduko hainbeste bazterretan bizitzaren ari direnak utziko dien arrastoa irudikatze hutsak. Hizkuntza eta kultur aniztasunaz gain, erronka berri bat izango dugu hezitzaileok: bizipen eta mundu ikuskerak horiek guztiak ez ahanzte, alegia. Ikaragarria izango da gure begietatik

ikusita kontatuko diegun munduaren eta beraiek bizi izan duten munduaren arteko taldak. Erakutsi eta irakatsi ahal izango ote diegu bizitzea, hala ere, mezezi duela. Ikusi eta ikasi ahal izango ote dugu haien ondoan itxaropenak, oraindik, baduela lekua eta bizi berri bat eraiki daitekeela zimentu anker horien gainean?

Zenbat eta zenbat haur eta gazterentzat hasten ote den mundua txarrantxaren beste aldean. Zenbat eta zenbat haur ote dauden txarrantxaren beste aldetik munduari begira. •



Haur palestinar bat, txarrantxa marrazten.

Ainara GOROSTIZU MUJICA

Txelo Ruiz

EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria



Ordenagailu ikusezinak

Gaur egun, gure inguruan, denok dakigu zer den ordenagailu bat eta zertarako erabil daitekeen. 1981ean IBMk lehenengo PCa (PC=Personal Computer) merkaturatu zuenetik, horien erabilera izugarri zabaldu da, merkatzen joan diren heinean. Mahai gaine ordenagailuak direla, ordenagailu eramangarriak direla, toki askotan topatzen ditugu: lantokietan, bulegoetan, eskoletan... Aplikazioak ere askotarikoak dira: testuak idazteko aplikazioak, kalkuluak errazteko kalkulu-orriak, marrazkiak egiteko aplikazioak... –horiek guztiak, eskuarki, *ofimatika* (edo bulegotika esan beharko?) paketeetan integratuta, bideojokoak, Interneten nabigatzeko bitzaileak...

Erabiltzaile mailan, bederen, batzuk hobeto, beste batzuk traketsago, esan genezake denok ikasi dugula ordenagailuak erabiltzen. Badakigu hardwarea dutela, osagai fisikoak edo “gogorak”, alegia; eta badakigu softwarea ere badutela, exekutatzeko dituzten programa edo aplikazioak, hain zuzen ere. Eta sistema eragilea behar dutela, osagai guztiak modu egokian kontrolatu ahal izateko.

Eta itxurari dagokionez, berehala antzematen ditugu ikusi ahala: kutxa antzeko bat (CPU delakoa), teklatu bat datuak sartzeko, pantaila bat informazioa bistartzeko; batzuetan, sagu bat ere badute...

Horiek dira ordenagailu estandarrek, begien bistakoak, baina horiez gain, gure egunerokotasunean, ia-ia konturatu gabe ere, beste milaka ordenagailu erabiltzen ditugu, guretzat ezkatuta dauden arren. Izan ere, ikusi ezin ditugun ordenagailuez inguratuta gaude.

Ezetz? Milaka gehiegi direla? Zenbakia puztu dugula?

Sistema txertatuak: ordenagailu ikusezinak. Gaur egun, ia-ia edozein aparatu edo tresnaren barruan ordenagailu bat dago, haren funtzionamendua kontrolatzeaz arduratzen dena. Kasu horretan esaten da ordenagailua sistemaren barruan txertatuta dagoela, ezin direlako bereizi bata bestearengandik, eta ho-

rrera sistema txertatuak direlakoak sortzen dira.

Mikrokontrolagailu izeneko osagai elektronikoa ohikoa da aparatu gehienetan, eta ordenagailu baten ezaugarri behinenak ditu: memoria dauka, programak eta aplikazioak gordetzeko; eta kanpoko munduarekin elkar eragiteko sarrera/irteerako interfazeak edo periferikoak ditu (tekla gutxi batzuk, edo pantailatxo bat, edo beste batzuk).

Ikus dezagun zenbat erabiltzen ditugun egun arrunt batean. Goizean goiz, iratzargailuak jo eta altxatu egin gara. Ze iratzargailu daukagu? Ziur moderno bat dugula, irratiduna edo irratigabea, berdin du, baina txiki-txiki bat izan arren, elektronikoa baldin bada, ziur mikrokontrolagailu xume bat duela barruan.

Gosaltzerakoan, kafea berotzeko, agian mikrouhin labea erabili dugu, edo bitrozeramika edo kapsuladun kafe-makina moderno horietako bat. Kasu

guztietan, ziur mikrokontrolagailu bat dutela barruan. Eta ogia txigortzeko txigorgailua erabili badugu, hor ere beste mikrokontrolagailu bat dugu, zalantzarik gabe. Esnea eta marmelada hozkailutik hartu ditugu, bertan kontserbatu behar direlako.

Agian, sakelako telefono adimendunari erreparatu diogu eguneko berrien kuxkuxean; edo telebista adimenduna piztu dugu eguraldiaren berri izateko, arropa egokia jantzeko asmoz.

Eta etxea txukun-txukun uzteko, agian, ontzi-garbigailua piztu dugu edo, beharbada, arropa garbitzeko ikuzgailua piztu dugu.

Gero, lantokira edo eskolara joateko automobila, autobusa edo trena hartu baldin badugu, horietan, mikrokontrolagailu bakarra ez, ehunka daude: ateak automatikoki ireki eta ixteko; motorra pizteko sistema elektronikoa; erregairen kontsumoa kontrolatzeko; motorren kutsatze maila kontrolatzeko sistema, softwarea barne... •



Ordenagailu ikusezinez inguratuta gaude. GAUR8

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA: